

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak indarkeria eta terrorismoa gaitzetsi eta biktimei elkartasuna agertu die berriro

Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta, ostiral honetako kontzentrazioan parte hartzera deitu ditu herritarrak

Miércoles, 09 de marzo de 2016

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran adierazpen instituzional bat onetsi du ostiral honetan, hilak 11, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna ospatzen dela eta.

Adierazpenaren testua honakoa da:

Europako Batasunak martxoaren 11 izendatu zuen terrorismoaren biktimak gogoratzeko egun gisa. Duela 12 urteko martxoaren 11n ekintza terrorista lazgarri batek 191 pertsonen bizitza urratu zuen eta ehunka zauritu utzi zituen Madrilén.

Terrorismoa gauza ikaragarriki bidegabea eta antidemokratikoa da, mina eta sufrimendua eragiten dituelako eta xede edo ideia bat giza duintasunaren eta pertsonen eskubideen gainetik jartzen duelako. Terrorismoa indarkeriaren erabilera, inposizioa eta eskubideen urraketa da, herritarren defentsaren, bakearen, bizikidetzaren, elkarrizketaren eta errespetuaren aurrean.

Terrorismoari eman behar zaion erantzunak nahitaez behar du sakontze demokratikoa eta bakearen, bizikidetzaren eta norberarekiko zein gainerakoekiko errespetuaren kulturaren aldeko apustu sendo, irmo, eta argia.

Ildo horretan, Terrorismoaren biktimen Europako eguna dela eta, Nafarroako Gobernuak ondokoa adierazi nahi du:

- Bere elkartasuna terrorismoaren biktima guztiekin.
- Zeinahi ideia edo proiektu defendatzeko orduan terrorismoaren eta indarkeriaren erabilerearen erabateko gaitzespena eta arbuioa.
- Biktima orok egia, justizia eta erreparazioa izateko duen eskubidearen aldeko zalantzarik gabeko jarrera.
- Desberdin pentsatzen eta sinesten dutenen eta bizi direnen arteko errespetuaren, bizikidetzaren eta enpatiaren alde eta balio horietan oinarrituta lan egiteko duen borondate irmoa.
- Duintasuna eta giza eskubideak bizikidetzaren ildo nagusi izanen dituen gizarte adiskidetu bat eraikitzeke duen bokazioa.

Gaur aitortza eta omena egin nahi diegu terrorismoaren biktima guztiei, uste baitugu gertaturikoaren memoriatik abiatuz eraiki ahal izanen

dugula gizarte bidezkoago eta solidarioago bat, berradiskidetzera eta bizikidetzara bidean urrats irmoak emanen dituen.

Halaber, Foru Gobernuak Nafarroako herritarrei dei egiten die parte har dezaten hilaren 11n 12:00etan Nafarroako Jauregiko aurrealdean, Iruñeko Karlos III.aren etorbidean egingen den kontzentrazioan parte hartzera.